

## Kutxabankek eta CECOBik Bizkaiko merkataritza-sektorea suspertzen lagunduko dute

- **Sektorearen digitalizazioa sustatzeko eta kontsumitzaileen erosketa-ohitura berrietara egokitzeko formula berriak eratzea aurreikusten dute**
- **Uste dute 2022a funtsezko urtea izango dela pandemiaren ondoren sektorearen behin betiko suspertzea sendotzeko**

**2022ko otsailaren 11an.** Bizkaiko Merkataritzako Enpresarien Konfederazioko lehendakaria den **Pedro Campok** eta Kutxabanken Txikizkako Sarearen Bizkaiko zuzendaria den **Xabier Solaetxek** lankidetza-akordioa berritu dute; urtebeteko iraupena izango du luzatzeko aukerarekin, eta formula batzuk ezarri dituzte Bizkaiko saltokien lehiakortasunari eusteko digitalizazio handiko ingurunean; izan ere, urruneko salmentek lekua gehiago hartu dute pandemiak eragindako erosketa-ohitura berrien ondorioz.

Horregatik, alderdi sinatzaileek irtenbide espezifikoak ematea adostu dute, bezeroekiko **komunikazio- eta salmenta-kanal berriak** bultzatuko dituztenak, negozioetarako diseinatutako tresnen bidez, baita ordainketa digitaleko sistema berriak ere.

Salmentak bultzatzeko prestatu diren tresnen artean **'Kutxabank Bizum Negozioak'** sistema, Bizum ordainketa-plataformaren teknologian oinarritua, nabarmentzen da. Sistema hau bereziki diseinatu da beren negozioaren ezaugarriengatik txartelekin edo STrekin ordaintzeko terminalik ez duten edo Bizumekin urrutiko kobrantzak egin gura dituzten saltoki eta profesional autonomoentzat.

Finantza-erakundearen irtenbide aitzindari honek aukera ematen die saltokiei eta profesionaleri hilean eragiketa-kopuru mugagabea egiteko, erosketa bakoitzeko 10.000 euroko zenbatekoarekin gehienez. 'Kutxabank Bizum Negozioak' aurrez aurre edo urrunetik kobratzeko erabil daiteke. Iaz, **800 milioi eragiketa** baino gehiago egin ziren zerbitzu horren bidez, eta merkataritza elektronikoan tresna eraginkor gisa finkatu zen.

Saltokiko Terminal (ST) gailuetako ordainketa-txartelekin osatutako eragiketei dagokienez, haien **fakturazioa % 18,26 hazi zen** Bizkaian, 2021eko datuekin alderatuta.

Hitzarmenak finantza-produktuak eta -zerbitzuak lehentasunezko baldintzetan eratzea ere aurreikusten du, eguneroko jarduna optimizatzeko eta, ondorioz, negozioen lehiarako

egoera hobetzeko. Finantza-produktuen multzo zabala hartzen du, bai inbertsiorako, bai zirkulatzaileerako. Kutxabankek beraien esku jarriko du **negozio hipoteka-mailegua**, negozioak ezartzen diren higiezinak erosteko, edo **negozio-mailegua**, zirkulatzaille-premiei erantzuteko edo ekipamendu profesionalaren (altzarien, makinaren, garraio-elementuen, ...) erosketa finantzatzeko.

Kutxabankek **Saltegi Kreditua** eskaintzen die CECOBIn kide diren negozioei. Banku Taldearen kontsumorako maileguen dibisioak (Kutxabank Kredit), azken bezeroei beren erosketak Saltegi Kredituaren bidez finantzatzeko aukera eskaintzen die. Kreditu horren ezaugarri nagusia da izapideak eta paperak alde batera utzi eta establezimenduan bertan egiten dela.

Finantziazio horrekin batera, Kutxabankeko txartelek, on line bankuaren edo banku mugikorraren bidez, erosketak egin ondoren atzeratzeko aukera ematen dute, **Flexibuy** zerbitzuaren bidez.

Gainera, **Plazox** zerbitzuarekin, Kutxabankeko datafono fisiko edo birtualek aukera ematen diote bezeroari erosketa saltokian atzeratzeko, izapide gehigarririk gabe.

CECOBIn elkartutako negozioek, halaber, beren negozioen eguneroko kudeaketa errazteko bereziki diseinatutako produktuak izango dituzte, hala nola **Negozio Kontua** eta **arrisku anitzeko aseguru**a, bereziki merkataritzako establezimenduetara bideratua, baita kolektiboko negozio eta saltegiarentzat, renting eran, ibilgailuen eskaintza lehiakorra ere.

Azkenik, lankidetzaren esparruak laguntza-ildo batzuk ezartzen ditu CECOBIn aurrez aurre eta online bere bazkideei zuzendutako jarduerak garatzeko, Kutxabankekin lankidetzan.